

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: SPIBE. Urteko dirulaguntza

ESPEDIENTEA: 2026UDIR0002

INTERESDUNA: SPIBE - SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO BIZILAG (IFK: G44608214)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 10.000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du SPIBE - SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO BIZILAGUN ELKARTEA-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Kultura teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta SPIBE - SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO BIZILAGUN ELKARTEAren (IFK: G44608214) artean egin beharreko hitzarmena .

BIGARRENA.- SPIBE - SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO BIZILAGUN ELKARTEA-ri 10.000 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa(k) antolatzeko: SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO JAIK

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren ZAZPIGARREN Klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60a ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 10000 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.334.53.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026UDIR0002-Alkate erabakia/Resolución (SPIBE - SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETA